

**TEKNOLOGIA BERRIAK.** Hamar arlotan banatu zituzten atzo web orriarik onenei emandako Buber sariak

# EGUNKARIAK saria jaso du, Interneten euskara garatzeko egindako lanagatik

Martxelo Otamendik EGUNKARIAKO Internet atalean diharduten langileei eskaini die saria

Iñaki Uriarte | BILBO

Interneten euskararen garapenaren alde lanik gehien egin duen webgune onenari emandako saria jaso zuen EUSKALDUNON EGUNKARIAK atzo. Sari honen finalera beste webgune euskaldun bat ere heldu zen; *Argia* astekariarena, alegia.

Martxelo Otamendi EGUNKARIAKO zuzendariak eskerrak emateaz gain, egunez egun web orria diseinatu eta elikatzen diharduten langileei eskaini zien irabazia. «Bereziki eskaini nahi diet sari hau EGUNKARIAren barruan Internet sailean ari diren guztiei: Simon Peña, Kepa Sarasola, Oskar Angulo teknikariari, eta, oro har, webgune hau garatzen lagundu duten guztiei», adierazi zuen Otamendik saria jasotzean.

Finalista izan den beste lehia-kidearentzako esker hitzak ere izan zituen Otamendik. «Zorionak eman nahi dizkiot *Argia*-ri EGUNKARIAK beste meritu dituelako sari hau jasotzeko», azaldu zuen.

Bilboko Euskalduna jauregian banatu ziren bart aurtengo Buber sariak. Hamar mailatan lehiatuko ziren web orriak In-



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Martxelo Otamendi EGUNKARIAKO zuzendaria atzo saria jasotzen, Lantik-eko ordezkariaren eskutik.

ternet erabiltzaileen artean aukeratu zituzten. Atzokora maila bakoitzeko bi orri eta bi atari heldu ziren. Epaimahaian Internet irakasle eta adituez gain, unibertsitateko irakasleak, Eusko Jaurlaritzako sailburuak eta Euskal Herria zein Espainiako

politikari ezagunak izan ziren. Guztira 26 kide izan ziren aukeraturako hoge finalisten artean ebatzi zutenak.

Epaimahaiak kontuan hartu ditu orria eratzeko orduan egindako ahalegina, diseinuaren kalitatea, egituraketa, negozio-

aren edo zerbitzu publikoaren ikuspegia eta edukien aberastasuna.

Sariari izena emateko *@Euskadi*-k Blas Pedro Urberuagaren ahalegina hartu du kontuan. 1994an, Urberuagak, *Buber*izen laburraz ezagutzen dute inter-

## SARIITUAK

### Arloz arloko onenak

- **Erakundeen webgunerik onena:** Bizkaimove
- **Bakoitzaren webgunerik onena:** Zinema.com
- **Kirol webgunerik onena:** SurfObsesion.com
- **Enpresa webgunerik onena:** Euskadiko Kutxa
- **Hedabide webgunerik onena:** EITB
- **Gastronomia-jaiak arloko webgunerik onena:** SanFermin.com
- **Kultura webgunerik onena:** Guggenheim Bilbao Museoa
- **Interneten euskararen garapenaren alde lanik gehien egin duen webgunea:** EGUNKARIA
- **On-line negozioak:** The Movie
- **Ataririk onena:** Bilbao Informacion

nautek, Euskal Herriari buruzko lehen webgunea sortu zuen. Idahoko euskal artzain baten seme honek egindako orrialdea izan da urte luzetan euskal kulturari buruzko erreferentzia nagusia.

Atzoko irabazleen artean euskal web orriarik onena aukeratu zuten. Saria Irungo Udalak irabazi zuen.

Atari onenen arloan Kaixo! eta Bilbao Informacion lehiatu ziren. Azkenean saria Bilbao Informacionentzat izan zen, epaimahaikideek hala ebatzita.

**TEKNOLOGIA BERRIAK.** Goi mailako azpiegituraz hornitutako sei areto herritarren esku egongo dira Larratxo auzoan

## Teknologia berrien zentro aitzindaria inauguratu zuten atzo Donostian



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Donostiako Larratxo auzoan teknologia berrien zentroa inauguratu zuten atzo. eDonostia.net Larratxo zentroa aitzindaria da Hego Euskal Herrian. Goi mailako azpiegitura teknologikoaz horniturik, herritarrek zuzenean eskura izango dituzten zerbitzu berritzaileak eskainiko ditu. Sei gela ditu gune berriak: Gerturatu, Laboratu, Prestatu eta Trebatu izenekoak, bideokonferentzia gela eta call center edo teknologia berriekin zerikusia duten gaien inguruko informazio eta aholkularitza zerbitzua. 237 metro koadro da, eta milioi bat euro gastatu dituzte hura egokitzeke. Horretarako, EBk eskaintzen duen Urban Planaz baliatu dira. Inaugurazio ekitaldian bideokonferentziaz Eusko Jaurlaritzarekin eta Santiagoko eta Gijoneko zinegotziekin izan zen Odon Elorza Donostiako alkatea.